


JON ARRETXE

HUTSAREN ITZALAK



erein

HUTSAREN ITZALAK

15

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko maiatzean

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-889-3

L. G.: SS-693/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

JON ARRETXE

HUTSAREN ITZALAK

erein

*Gure artean egon arren
existitzen ez diren afrikar guztiei*

I SIRA



1

Ilaran zain dauden eskola-umeek kilikaturik so egiten diote sagu erraldoiari, edo, hobe esanda, saguz mozo-rrotutako pertsonari. Iragarki-orri batzuk ageri dira haren inguruan, zera diotenak: “Hemen, *Etxean* liburudendaren standean, egunero Geronimo Stilton bera. Liburua erosi eta lortu bere sinadura”.

Minutu pare bat besterik ez da falta Bilboko Liburu Feriari hasiera ofiziala emateko, eta antolatzaile, agintari, ordezkari eta abarrak, gehienak gizonezkoak, ekiteko momentuaren zain daude zutiko mikrofono baten atzean. Ia denak dotore jantzita daude, trajez-eta, baina batzuen keinuek nabarmentzen dute nahiago luketela kamiseta hutsean egon maiatzaren amaierako eguerdi sargori honetan. Euren aurrean, kamera, grabagailu eta koadernoz hornitutako kazetariez gain, ikusle multzo txiki

bat dago. Feriako liburu-denda eta argialetxeek irekita dauzkate jada salmenta-postuak, eta oinezko batzuk liburuak begiztatzen ari dira.

Halako baten, antolatzaileen multzoko bi gizon, bibotedunak biak, mikrofonora hurbildu dira, eta haierako txikiena ongi-etorria adierazten hasi zaie hara bildutakoei. Ziurrenik mintzaldi dotorea zeukan prestatuta feria behar bezala inauguratzeko, baina ez du gauza asko esateko astirik izan, bat-batean ikusleen artetik gizon beltz txiki bat atera eta, hizlariarenganaino korrika joanda, eskuan daraman merengezko pasteltxoa aurpegian zapaldu baitio, oihu ulergaitz batzuk botatzeaz batera. Erasotzailea, orduan, gelditu egin da, eta zalanztatan legez begiratu die, txandaka, mihi puntaz merengearen zaporea dastatzen ari den bibotedun txikiari eta zirkinik ere egin ez duen beste handiagoari. Agerian dago urduri dagoela, eta arma bat daukala oihukatu du jende arteko norbaitek. Edonola ere, erasotzaileak ez du ez armarik ez beste ezer ateratzeko aukerarik izan, berehala itxura atletikoko gizon gazte bik, dotore jantzita hauek ere, haren gainera salto egin, lurrera bota eta immobilizatu egin baitute. Beste norbaitek atentatua izan dela esan du eta nahasmen zalapartatsua sortu da ferian; deiadarrak aditzen dira, korrikaldiak daude, presakako telefono deiak, sirena batek polizia-autoren bat datorrela adierazten du, eskola-umeen irakasleek ez daukate oso argi zer gertatu den ez zer egin behar duten haurrekin...

Hauetariko batzuk korrika hasi dira nora ezean, lurean botata geratu den sagu-mozorroa zapalduz.

2

Eszenatokiaren Erdiko plataforma igotzen hasi zenean bi lagun baino ez geunden haren gainean: ni neu, gona gorri huts batez jantzita eta aizkoratza bati gogor oraturik giharrak hobeto markatzeko, eta sopranoa, Maria Estuardaren rola betetzen zuen petarda jasangaitza. Operako azken notak oihukatzen ari zen, behean gelditutako beste bakarleri eta koruko partaideekin batera.

Plataformak, pixkanaka, beldurtzeko moduko altuera hartzen zuen bitartean, ezin izan nuen saihestu nire egoeraz hausnartzea, eta nire patua Maria Estuardarena baino askoz hobea ba ote zen galdetu nion neure buruari. Bilboko Euskalduna antzokian geunden, denboraldiko azken operaren azken saioa zen hura, eta ikusleek sopranoari liluratuta legez entzuten zioten bitartean, nire burura susmo etsigarri bat etorri zen: lantxo haren ordaina jaso ondoren, hurrengo hilabeteetan ez nuela xentimorik aterako kasualitate sinesgaitzek sartu ninduten musikaren mundu hartatik. Egia esateko, aurreko hilabeteak ere negargarriak izan ziren, denboraldi osoan behin ere ez baitzidaten eskaini Opera Korukoekin kantatzea. Proposamen bakarra Maria

Estuardarako jaso nuen, eta ez kantari jarduteko, figurantea izateko baino, belzkote baten beharrean baitzeuden borroeroarena egiteko.

Hala eta guzti, antzeppen eskas haren truke kantatuz baino askoz diru gutxiago jaso behar nuen arren, euro haiek primeran etorriko zitzaizkidan. Izan ere, aspaldiko bolada txarrak ez zeukan amaitzeko itxurarik, eta nire ohiko ogibideak zein baino zein eskasago zihoazen. Musikarena alde batera utzita, ikertzaile gisa sortzen zitzaizkidan kasuetatik ia dirua galtzen ateratzen nintzen, inork ez baitzidan ostutako harribitxirik berreskuratzeko edo bahitutako printzesarik askatzeko enkargurik egiten. Bilbo Zuritik ez zidaten deitzen, eta San Frantzisko aldean, gure Afrika Txikian, harribitxi gutxi eta printzesa gutxiago zeuden. Horren ondorioz, ganora gutxiko aginduen truke eskupeko miserableak baino ez nituen jasotzen. Gigolo aritzeko –nire aurkezpen-txartelei erantsi nien azken eskaintza, andre zurien artean neukan arrakastaz jabetuta–, proposamenak urrituz joan ziren, batez ere Opera Koruko atso apetadunek bistaz galdu nindutenetik, eta deitzen zidaten gehienak gizonezkoenak izaten ziren. “Dena sosaren alde” zen nire filosofia, baina den-dena onartzeko bezain desesperaturik ere ez nengoen. Nire ogibideen zerrenda amaitzeko, txarteletan iragartzen nuen lehen ofizioa zegoen, igarle jakintsuarena. Horrexek erakartzen zuen bezero gehien, batez ere auzoko afrikar inozo eta sinesberak, baina oso gutxi ziren

haien artean nire zerbitzuak ordaintzeko asmoa eta dirua zeuzkatenak.

Gauzak hala, San Frantzisko kaleko patera-pisuan niretzat bakarrik hartua neukan logela utzi eta Osman betteranoarena partekatzeraz bueltatu behar izan nuen, bai eta haren elkartasunaz aprobeztatzeraz, Bilbora ailegatu nintzen garaian legetxe. Orduan bezala nengoen, edo okerrago, bolada arrakastatsu baten ondoren, egoera normaldu eta zulotik behin betiko aterako nintzela iruditzen zitzaidanean, hainbat porrot jaso eta beheraino joan bainintzen osteraz ere.

Eszenatokiaren ertz ezkutu batetik zetorren zurrumurrak eten zuen nire hausnarketa: “Benga, Toure, bengal” zioen erregidorearen ahots premiatsuak. Orduan konturatu nintzen, orkestrako musikak jarraitu arren, kantari guztiak isilik zeudela eta nire plataformakidea belauniko eta burua jaitsita zegoela jada, bere patuaren zain. Bizkortu behar nuela jabetu nintzen eta orduan bai, orduan ni, Mara borreroa, agindu zidatena egiteko prestatu nintzen, zentzugabea irudituta ere. Aizkoraz burua ebakitzeko plantak egin beharrean, hau lurrean utzi, Maria Estuardaren heriotza irudikatzeko likido gorri batez betetako urrezko kaliza hartu eta sopranoaren lepo gainetik isuri nuen. Aurreko saioetan ez bezala, orduko hartan lepoa ez ezik burua ere busti nion, eta atsekabeko kexu txiki bat aditu uste izan nuen.

Berehala orkestra isildu eta aurreko saioetako txalo zaparrada berdintsuarekin batera jaitsi zuten oihala, baita gure plataforma ere, eta entzun nituen lehenengo hitzak sopranoaren ahotik atera ziren. “Beltz putakume ezgauza hori!” bota zidan, gorrotozko begirada batez, atzamar puntez bere ile gorritua ukitzen zuen bitartean. Aizkorari heldu eta burua benetan ebakitzeko tentazioa izan nuen, baina ez nuen astirik izan ezta erantzuteko ere, segituan presakako aginduak hasi baitziren inguruan, bai eta batera nahiz besterako korrikaldiak ere, agurren zeremonia lehenbailehen antolatzea helburu.

Bakoitza zegokion lekuan kokatu ondoren oihala berri jaso zutenean, nire gaitasun magikoak baino are faltsuagoak ziren irribarre eta hunkipen-keinuen txanda etorri zen, amaigabea iruditu zitzaidan agur-segida baten bidez: lehenik figuranteok, gero korukoak, gero bakarlarriak; banan-banan, taldeka, musika-zuzendari eta guzti, eszena-zuzendari eta guzti... Gero loreak ekarri zituzten emakume bakarlarientzat, agur gehiago, hunkipen-keinu gehiago, ikusleen etengabeko txaloak eta “bravoak”... Eta, hori dena gutxi izanean ere, dena amaitzear zegoela zirudienean, antzokian bildutako guzti-guztiok isildu, ikusleak zutitu eta orkestrak himno antzeko doinu monotono bati ekin zion. Hori ere agoantatu behar izan nuen, segundo oro zer ordu ote zen urduritasunez mamurtzen nuela.

Minutu luzeegi haien ondoren, behingoz, oihala azken aldiz jaitsi zen eta eszenatokian pilatutako jende

gehiena hantxe geratu zen denboraldiaren amaiera ospatzen, txaloka, musuka, elkarki laudorioak botatzen, argazkiak egiten... Nik, ostera, astirik galtzeke aldage-lara joan, gorputzean zabaldu zidaten olio lehortu, kaleko arropaz jantzi eta Euskaldunako artisten atetik irten nintzen. Saio guztien amaieran bezala, hainbat divozale hurbiltzen ari ziren ate hartarantz, kantariengandik autografoak, argazkiak edo solasaldi labur bat, sikan, lortzeko esperantzaz, eta haietariko batzuek poltsari, diru-zorroari edo bestelako ondasunei heldu zieten euren artetik presaka pasatzen ikusi nindutenean.

Erlojuari begira hurreratu nintzen Osmanekin geratutako lekurantz, Jesusen Bihotzaren plazako motorren aparkalekurantz, egin behar genuen bidaia osatzeko denboraz larri ibiliko ginela mamurtuz. Baina gelakide mariarra begiz jo nuenean atsekabez ohartu nintzen ez zegoela bakarrik. Inola ere topatu nahi ez nituen bi gizon zeuzkan aldamenean.

3

–Etorri, Toure, ez lotsatu –bota zidan gizon haietako txikienak, ile laburreko beltzaran batek, Osmanen R-5 zaharraren sabaian kolpetxoak joaz.

Nahi baino hobeto ezagutzen nuen uniformerik gabeko ertzain hura, “Etxebe” deitzeko eskatzen zidana ustezko kolegatasun baten izenean. San Frantzisko aldean lan egiten zutenetako bat zen, eta alboan zeukan laguna ere, burusoil handi bat, talde hartakoa zen, beterranoena, isilagoa baina aginduak ematen zituenena. Eurei esker atera nintzen libre droga-trafiko kontu batetik, gogoz kontra nahastu ninduten arazo oso itsusi batetik; hori zioen, behintzat, Etxebek, eta topatzen ginen guztietan gogorazten zidan, nola edo hala, eurekin zorretan nengoela.

–Nora zoazte, ba, horrelako presaz? –itaundu zuen nire ustezko kolegak.

Osmani so egin nion, baina ez zidan ezer adierazi.

–Zergatik esan behar dizuegu? –ausartu nintzen.

–Zergatik? Gu poliziak eta zu etorkin ilegala zarelako. Ala lortu dituzu paperak?

–Oraindik ez, baina gutxi falta zait.

–Jakina, beti bezala.

Amorrua sentitu nuen, gai hura ateratzen zen guztietan legez. Izan ere, aspaldi ez zela, emakume abokatu bati dirutza ordaindu nion paperak lortzeko promesaren truke. Ziria sartu zidan, auzoko beste atzerritar askori bezalaxe, eta zerotik hasi behar izan nuen berriz gero eta korapilatsuagoa den prozesuarekin. Kontsolamendu bakarra puta hura kartzelan zegoela jakitea zen.

–Esan –berrekin zion Etxebek–, nora zoazte?

–Hendaiara. –Egia aitortzea erabaki nuen, agian bai baitzekiten zein zen gure plana. Ez zen batere harrigarria izango, aspaldi hartan San Frantziskoko Afrika Txikian sumatzen zen erabateko kontrola kontuan hartuta.

–Zertara?

–Nire alabaren bila. Parisen bizi da eta bisitan dator, trenez.

–Inoiz hitz egin didazu alaba horretaz?

–Ez dut uste.

–Zenbat urte dauzka?

–Hamazortzi. –Egia esateko, ez nengoen guttiz seguru zein zen haren adin zehatza, neurearekin gertatzen zitzaidan legez–. Ez arduratu beragatik –erantsi nuen–, paperak badauzka eta.

–Berak agian bai –keinua seriotu zuen poliziak–, baina zuk ez; eta, oker ez banago, Hendaia Frantzian dago, ezta?

Isilik geratu nintzen.

–Ez dakizu zer egiten ari diren gabatxoak aspaldion etorkin ilegalekin? Gainera, guk ere esana dizugu ezin duzula mugarik igaro, ezta? –Esana zidaten, bai, ezin nuela mugarik igaro, ez nuela Bilbotik gehiegi urrundu behar haiek abisatu gabe, beti lokalizatzeko moduan egon behar nuela...–. Ez baduzu txintxo jokatzeko, badakizu zer gerta daitekeen, ezta? Bada Burkina Fasoko zure familia bisitatzera bidali ahal zaitugula, bueltako billetterik gabe.

Gorom-Gorom-en utzitako emaztea eta bi muti-koak etorri zitzaizkidan gogora, ezinbestean. Urteak ziren ez nituela ikusten, eta paperen porrotaren ondoren ez nekien zenbat gehiago itxaron beharko nuen haiek ekartzten saiatzeko.

–Gaia aldatuz... –Burusoilaren ahots ilunak atoan itzularazi zuen nire gogoa Afrikatik. Ia ni bezain handia zen eta aurrez aurre paratuta hitz egin zidan–: Non egon zara gaur eguerdian?

–Hortik zehar. –Zalantzatsu atera zitzaidan ahotsa.

–Hortik zehar? Non?

–Bilbotik paseoan.

–Paseoan ala magia egiten? –Bere aurpegian ohikoa ez zen irribarre antzeko keinu bat azaldu zen–. Esan digutenez, Liburu Ferian istilu bat egon da eta jarraian sagu bat gizon bihurtu da, zure antz handia daukan gizon beltz bat, eta, berriro magiaren eraginez, gizona desagertu egin da bat-batean. Zer esan ahal diguzu horretaz?

Kabroi haiek dena zekiten, beti bezala. Bilbo osoan sakabanatutako kamerak zirela, telefono bidezko elkarriketen kontrola zela... Alferrik zen ziria sartzen saiatzea.

–Gertatu dena horren ondo badakizue, zertarako galdetzen didazue?

–Hain zuzen, ez dagoelako guztiz argi ferriako istiluaren benetako arrazoia, zenbat jende egon daitekeen inplikaturik... Zu, esaterako, zergatik desagertu zara ziztu bizian handik?

–Beldurtu egin naizelako. Ez dut ikusi zer gertatu den, baina oihuak hasi dira, polizien sirenak entzun ditut eta, badaezpada, ospa egitea erabaki dut.

Poliziak isilik geratu ziren apur baten eta neuk ekin nion berriro:

–Jakitearren..., zer gertatu da?

–Hemen geuk egiten ditugu itaunak. –Etxebe sartu zen ostera ere–. Eta, jakitearren..., zenbat ordaindu dizute saguarena egitearen truke?

–Gaur ezer ez, behar baino lehen alde egiteagatik.

–Eta hurrengo egunetan utziko dizute itzultzen?

–Badirudi baietz, ze ez dute inor aurkitu saguarena egiteko prest dagoena, eskaintzen dutenaren truke, behintzat.

–Zenbat kobratuko duzu?

–Hamar euro saio bakoitzeko, espero dut.

–Tira, ez dago txarto. –Pausa laburra egin zuen–. Hamar euro goizez eta beste hamar arratsalde, ezta? Ferriak hamar bat egun irauango ditu... Azkenean dirutza aterako duzu! –Mozolo aurpegi hark ez zuen erantzunik merezi, eta berbaz jarraitzen utzi nion–. Nire umeek maite dituzte Geronimo Stilton saguaren ipuinak. Mozorrotuko zinateke egunen baten haientzat, ale batzuk sinatzeko? Kobratuta, jakina.

Etxebek gogoko zituen halako adar-jotzeak, harrezkero lar ondo ezagutzen nituen haren graziarik gabeko txisteak.

–Uste dut hobe duzula umeak feriarra eramatea –erantzun nion–. Han egongo naiz, ziur, eta debalde egingo diet sinadura.

–Gatozen harira –moztu zuen beterano burusoilak, irribarre imintztoa aurpegitik ezabatuta eta niri zuzen begira–. Lekukoak behar ditugu eguerdiko gertaera argitzeko.

Erlojuari so egin nion hainbatgarrenez. Ertzainek behala amaitu eta bidaia egiteko baimena emanda ere, ezinezkoa zen jada Hendaiera garaiz ailegatzea Sira jasotzeko. Lerdo hutsa sentitu nintzen denbora hain txarto kalkulatzegatik. Alaba luze barik iritsiko zen geltokira, eta han ikusten ez baninduen... Abisatu egin behar nuen.

–Dakidan guztia kontatuko dizuet, jakina –esan nien ertzainei–, baina dei bat egin dezaket lehenago?

–Nori deitu behar diozu?

–Alabari.

Onespena eman zidaten keinu bizi-barkatzaile batez eta, haiengandik apur bat urrunduta, sakelakoa hartu eta Siraren zenbakia markatu nuen. Seinalea aditu zen; es-taldura, sikan, bazeukan zegoen lekuan, eta erantzunaren zain geratu nintzen.

Azken hilabeteetan askotan eskatu nion alabari, eskatu baino areago erregutu, bisitan etortzeko Bilbora, ni ezin bainintzen Parisera joan. Baina beti topatzen zuen aitzakiaren bat ezetz esateko, eta ukapen haien ondorioz,

haren bizimoduaz neuzkan susmo ilunak handitu baino ez zitzaizkidan egiten. Egun baten, ostera, esperantza galduta neukanean, bat-batean berak deitu eta bisita egitea proposatu zidan. Kilikadura sumatu nion ahoskeran, urduritasuna agian... Ez zidan bestelako azalpenik eman, kezka eta pozaren arteko sententzioa eragin zidan hark denak, baina alaba aspaldiko partez besarkatzeko gogo nagusitu egin zen.

Lehenengo deiaren seinaleak agortu egin ziren erantzunik gabe. Berriz probatu nuen, alferrik. Hirugarrenez saiatu nintzen, emaitza berberaz... Agian zarata handia zegoen trenaren barruan eta ez zuen telefonoa entzun?

Atsekabez itzuli nintzen ertzainak eta Osman zeuden tokira. Alabaren kontua minutu batzuetarako alboratu beste irtenbiderik ez zegoen, eta polizia galderei erantzuteko prestatu nintzen.

Egia esan, ezin izan nien gauza askorik argitu, eguerdiko erasoak edo dena delakoak urrun eta lanpeturik harrapatu ninduen eta. Zin egin nien huraxe zela egia, ez nuela ezer ikusi eta, jakina, ez neukala inolako erlazioz erasotzailearekin, beldurraren eraginez egin nuela ospa feriatik... Azkenean amore eman zuten; errazegi, iruditu zitzaidan, eta horrek susmo txarra eragin zidan.

–Tira –bota zuen Etxebek, zizpuru behartu batez–. Sinetsiko dizugu eta ahaztuko gara kontu honetaz, oraingoz. Dena dela... –egin zuen isiluneak nire susmo txarra

areagotu baino ez zuen egin—, honek gurekin daukazun zorra apurtxo bat handitzen du. Konturatzen zara, ezta?

Jakina, berriro lelo hura, inoiz betetzen ez den mesede, inoiz kitatzen ez den zorra. Itogarria zen beti portroetatik helduta egotearen sentsazio hura. Zer eskatu behar zidaten orduko hartan?

Burusoilak keinu bat egin zion Etxeberi eta honek Osmani hitz egin zion:

—Ea, Harri Aroko auto honen paper guztiak ikusi nahi ditut.

Haiek biak kopilotuaren aterantz abiatzen ziren bitartean, ertzain bikoteko nagusiak beste keinu bat egin zidan niri, hiruzpalau metroz urrundu ginen R-5etik eta beste inork ez entzuteko moduan mintzatu zitzaizdan:

—Askotan joaten zara meskitara?

—Inoiz ez —erantzun nuen, nondik jo behar zuen argi ikusi gabe.

—Ez zara musulman ona?

—Ez ona ez txarra, animista naiz.

—Egia da, ahaztuta neukan. —Trufa barik gutxiespena adierazi zuten ertzainaren hurrengo hitzek—: Toure igarle boteretsua, magia zuria nahiz beltza menperatzen dituen. —Nire txartelean iragartzen zena hitzez hitz errepikatu ondoren pausa txikia egin zuen, agian adiskidetsua izan nahi zuen begirada bat zuzentzeko aprobe txatu zuena—. Tira, argi azalduko dizut zer espero dugun zugandik. Ziur asko,

badakizu aspaldion leku askotan sortzen ari direla zelula islamista direlako horiek, ez da hemengo arazoa bakarrik, Mendebaldeko herrialde guztietan ugaritzen ari den fenomeno da. Bada arduratuta gaude horrelako zerbait sor ote litekeen San Frantziskoko zuloan ere, eta ondo etorriko litzaiguke konfiantzazko lagun afrikar bat edukitzea meskita berriko giroan sartuta.

Nahastuta so egin nion, sartu nahi ninduen marroi hartatik libratzeko aitzakia arin pentsatu behar nuela sentituz.

–Ni ez naiz pertsonarik egokiena, inola ere ez –erantzun nuen.

–Ez zenuke gauza handirik egin beharko. Besterik gabe, otoitzaldietara joan, imanari entzun, jendearekin egon... eta zerbait arraroa antzeman ez gero, guri deitu, noski.

–Auzoan denek ezagutzen naute, badakite ez naizela islamzalea eta, bat-batean, meskitara joaten hastea oso deigarria izango litzateke. Hobe duzue beste norbait bilatzea.

Ez nuen uste nire aitzakiak konbentzitu zuenik, baina oso argi neukan ez nengoela halakorik egiteko prest. Antzeko sator-zereginak sarri proposatzen zizkidaten aspaldi hartan, sarriegi, gehienetan drogen trafikiko-kontuei zegozkienak: lokal susmagarriren baten muturra sartu eta zerbait asmatzen saiatzea, pertsona jakin batzuen inplikazioaz ikertzea... Beti bilatu behar nuen

oreka, Afrika Txikiko jende arriskutsuarekin ez nuen inolako arazorik nahi, baina, aldi berean, laguntzeko borondatea baneukala sinestarazi behar nien poliziei, niretzat arriskutsuenak eurak izan zitezkeen eta. Horretarako, lantzean behin inor gehiegi ziprizontzen ez zituen sasi- txibatazoak egiten nizkien, beraiantzat ere ezagunak ziren trapitxeoak-eta salatuz... Ezinezko oreka hura bilatzeak asko larritzen ninduen, larritu eta nazkatu, eta neure buruaz lotsatzen ere hasita nengoen.

Ez zitzaidan bururaten beste ezer esateko, eta isilik itxaron nuen ertzainaren erreakzioa. Baina ez zuen ezer erantsi, beste keinu truke bat egon zen polizien artean eta Etxebe eta Osmanekin elkartu ginen. Bien bitartean, Euskalduna antzokitik jende uholdeak ateratzen jarraitzen zuen, asko gure albotik igaro eta zer gertatzen ote zen begira geratzen ziren, eta emango nuen poliziak gu baino deserosoago sentitzen hasita zeudela.

–Ondo pentsatu gure proposamena –bota zidan azkenik burusoilak, bere ahoskerarik ilunena berreskuratuz–, ze zure azken aukera izan liteke; ezin badiguzu ezertan lagundu, ez zaitugu ezertarako behar. Ondo portatuz gero, berriz, batek daki, agian lan- eta erresidentziabaimenak eskuratuko zenituzke magiaren beharrik gabe.

Onespen antzeko zerbait adieraz lezakeen keinu bat egin nuen.

–Eta zuk –Osmani zuzendu zitzaion oraingoan burusoila, nirekin erabilitako mehatxu kutsu berdinaz–,

kendu txatar hori hortik. Hurrengoan isuna ipiniko dizugu hemen gelditzeagatik. Hau motorren aparkalekua da, ez dakizu irakurtzen?

Plaka bat seinalatu zigun, eta nik gogoia izan nuen beste zerbait seinalatzeko, gure alboan geldituta zeuden beste hainbat kotxe, gure R-5 zaharra baino nahiko itxura hobekoak. Haietan sartzen ari ziren antzokitik ateratako operazaleak, horiek ere gu baino itxura nahiko hobekoak, noski.

–Orduan, joan gaitezke? –galdetu zuen pisukide maliarrak.

Ertzainek erantzun ere ez zuten egin. Bizkarra erakutsi eta handik alde egin zuten, polizia izaten duten ibilera makarroi eta handiuste horrekin.

4

Osman eta biok isilik sartu ginen R-5ean eta, bera arrankatzen saiatzen zen bitartean, nik Sirarekin kontaktatzeko ahaleginak egin nituen berriro.

Antzeko emaitza izan genuen biok: nire alabak ez zuen erantzun, eta gelakidearen autoak ez zuen martxan ipini nahi izan.

Birao txiki bat ere ez zuen bota maliarrak. Azken baten, porrot hura ez zen gauza berria. Traste zahar haren